

gure lurriña

Bilur
Gipuzkoa





ZER DA KOMUNITATEA?

Azkenaldian “komunitatea”, bereziki **agroekologia komunitatea**, behin eta berriz darabilgu. Baina, honetaz hitz egiten dugunean, benetan zertaz ari gara? Terminoa abstraktua da, eta bakoitzak bere erara ulertu ohi du. Hala ere, guretzat esanahi sakon eta zehatz bat du.

Komunitatea **identitate-sentimendu bat da**, “gu” baten parte izatearen esperientzia. Ez gaudela bakarrik ikustea eta sentitzea: agroekologian sinesten dugunok, hori praktikara eramaten dugunok eta horren alde borrokatzen dugunok asko garela konturatzea.

Badakigu norbanako gisa oso desberdinak garela, eta horixe bera da aberastasuna. Baina aldi berean, **ideia eta helburu nagusi batek elkartzen eta besarkatzen gaitu**. Guztion indarrak uztartuta, bideari ekiten diogu; bakarka baino motelago joango gara agian, guztion erritmoak errespetatu behar direlako, baina argi daukagu elkarrekin urrunago iritsiko garela.

Komunitateak **kolektiboaren indarra** ematen digu: babesa, motibazioa eta aurrera jarraitzeko energia.

Ezinbestekoa da **bakarrik ez gaudela sentitzea**, ez gaudela “zoratuak”, ez gaudela norabiderik gabe. Gure artean begiratzeak bide onean gaudela gogorarazten digu; horrek bai buruan bai gorputzean **ziurtasun sakon bat sortzen du**, aurrera jarraitzeko behar dugun oinarri sendoa

Horregatik, guretzat, komunitatea ez da soilik pertsona multzo bat; **ikuspegi partekatu baten inguruan elkarlanean aritzen den bizitzeko modu bat da**.

Zipristindu dezagun beraz 2026a ere Gure Lurriñaz!

Biba gu!

ZUZENDARITZA BATZORDEA

LEHENDAKARIA
MIRIAM ARRIZABALAGA BADIOLA
BARATZAGINTZA,
DONIENE BERRI BASERRIA. ITZIAR

LEHENDAKARI ORDEA
AIZPEA IZAGIRRE BALDA
OKINTZA,
SOSOLA BASERRIA. EIBAR

IDAZKARIA
IORITZ IGARATAUNDI ARREGI
BARATZAGINTZA ETA ARTZANTZA, SAKONA
BASERRIA. AZPEITIA

DIRUZAINA
JUDIT GARCIA LLORENS
ABELTZANTZA ETA GAZTAGINTZA
ETXEBERRI GOIKOA, OLABERRIA

BATZORDEKIDEA
ASIER LIZARRALDE ARRILAGA
FRUTAGINTZA,
LIZAGASAR BASERRIA. ELGOIBAR

BATZORDEKIDEA
NERE ASPIAZU BASKARAN
BARATZEGINTZA,
ESKUBARATZ. BERGARA

BATZORDEKIDEA
IÑAKI INTXAUSTI ITURZAETA
BARATZAGINTZA ETA ABELTZANTZA,
MENDARTE BASERRIA. ZERAIN

BATZORDEKIDEA
LUR PAGOAGA ZALOÑA
ARTZANTZA ETA GAZTAGINTZA
ARANGUREN BASERRIA, ARRASATE.



BARATZEZAIN TALDEA

GURE BARATZETAKO OSASUNA

Azken urteetako joerari eutsiz, gure baratzerako osasun arazoan zerrenda handitzen doa. Labore dibertsitate handiko baratzak izanik gehienetan ez dira arazo larriak, baina areagotuz doaz.

Gorakada hauen arrazoietakoa bat, baratza lanaren espezializazioa da. Izan ere kasu askotan urte luzeetako martxa dago. Behar bezalako errotazioak eginda ere, labore talde batzuen errepikatzea ematen da eta honek arazo fitosanitarioa finkatzea dakar (negutegiko tomatearen kladosporiosia – *Fulvia fulva*- kasu).

Bestalde, azken urteetako klimaren aldaketa mahai gainean daukagu. Muturretara jotzen ari dela dirudi eta lehengo lau urtaroak bitan bihurtu direla: sasoi fresko eta euritsuago bat eta sasoi bero eta lehorrago bat.

Lehen arazo fitosanitario nagusiak gure baldintza klimatikoetara lotutako onddoekin erlazionatzen bagenituen ere, gero eta nabarmenagoa da plaga izan daitezkeen intsektuen presentzia. Izan ere intsektuen zikloak guztiz lotuta doaz tenperatura igoerarekin; zenbat eta altuagoak, orduan eta hegaldi edo generazio gehiago egin ditzakete sasoi bakoitzeko.



Tenperatura igoeraren eraginez **aurten pairatu ditugun arazo aipagarri batzuk:**

- **Lepidoptero edo tximeleten beldarren kalteen areagotzea:** espezie bakoitzak hegaldi kopuru bat burutu dezake urtero. Zenbat eta bataz besteko tenperatura altuagoa izan, azkarrago betetzen dute zikloa eta hegaldi gehiago burutu ditzakete. Esaterako, porruaren beldarraren kasuan (*A. assectella*) urtero 2tik 4 hegaldira egin ditzake udaberritik udazkenera; aurten 3 egin dituelakoan gaude. Edo lurreko beldar grisek (*Agrotis spp.*) 1etik 4 hegaldira egin baditzakete, aurten 2 edo 3 egin dituzte lekuaren arabera. Beldarren kontrolerako lan gehiago egin behar da: tratamendu gehiago, materia aktiboak aldatuz. Feromonak erabiltzea gomendatzen da hegaldia kontrolatu eta eraginkorragoak izateko. Sareak jar daitezke laboreak babesteko.
- **Negutegi barruko intsektu xurgatzaileak gora doaz:** negutegiko ongarriketa dosi altuek eta udako giroaren hezetasun erlatibo baxuek, baina batez ere tenperatura altuek, intsektu xurgatzaileei mesede egiten diete, ugaltze zikloak azkartuz. Zorriak, euli zuria (*T. vaporarium*), armiarma gorria (*T. urticae*) eta, gero eta gehiago tripsak (*F. occidentalis*), gora doaz. Guzti hauek hainbat birusen bektore izan daitezke eta, birusak ere gero eta ohikoagoak dira. Laboreetako behaketak garrantzia hartzen du hauekin.
- **Lurreko onddo berrien ugaltzea:** aurten gogor jo du lepoko onddo kotoitsuak (*Sclerotium Rolfsii*). Espezie askotan ager daitezkeen arren, bereziki piper eta lekak kaltetu ditu. Ertameriketatik etorritako lurreko onddo honen hazkuntza baldintzak, lurreko hezetasun maila ona eta tenperatura oso altua (30°C inguru) dira. Ekaina erditik uztaila erdialdera eman dira eta gogor jo du zenbait baratzetan. Kontrol zailekoa da.



BARATZEZAIN TALDEA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN OINARRIEN AZPIMARRAK

Ekarri nahi den mezua da inoiz baino garrantzi handiagoa hartzen dutela beti aipatzen ditugun nekazaritza ekologikoaren oinarriek.

Konbentzituta gaude **teknika multzo guzti honek emango diola baratz sistemari ondo funtzionatzeko behar dituen osagarriak eta erregulatzeko gaitasuna:**

Lurraren estruktura eta bizitza zaintzea, ongari berdeak eta ongarriketa doituak erabiliz.

Errotazioei erreparatzea, ahal den neurrian familia eta espezieetan aberastuz.

Ondo egokitutako laboreak aukeratzea, egokituena, erresistentziadunak edo hazkuntza azkarra dutenak aukeratuz.

Laboreen beharrak zaintzea, temperatura minimoak edo ureztapen beharrak bermatuz.

Biodibertsitate elementuak sustatzea, basa hesi finkoak, lore bandak eta landare aromatikoak landuz.

Hala ere inoiz baino formatuago eta erneago egon beharra daukagu sortu daitezkeen izurrite eta gaixotasunen aurrean modu eraginkor batean erantzuteko.

Prebentzio neurriez gain, babes fitosanitariorako produktu eta tresna eraginkorrak gure errealitatera ekartzeko bidean jarraitu behar dugu.

Ohar fitosanitario eta formazioen bitartez baratzezainen artean informazioa partekatzen jarraituko dugu.

Elkarrekin ikasten jarrai dezagun!

FORMAZIO SAIOAK

Biodibertsitatea sustatzearen harira eta aurreko urteetako formazioei jarraituz, martxoaren 13an **“Fauna lagungarria eta lore bandak”** ikastaro teoriko-praktikoa egin genuen Zestoan, INTIA-ko Noelia Telletxearekin.

Bertan errepaso bat eman genien baratzeetan izan ditzakegun intsektu auxiliari nagusiei eta hauek elikatu eta gordetzeko erabil daitezkeen landare aukera zabalari.

Saio teorikoaren ondoren Amillubira joan ginen landare nahaste proposamena eskutan hainbat bandeja erein eta banatzera, gero norberak etxean landatzeko.

Gero eta gehiago animatzen zabilatzate lore bandak lantzeraz, biodibertsitateaz gain, edertasuna sustatuz!



BARATZEZAIN TALDEA

BARATZEGINTZA EKOLOGIKOAREN BIZIGARRITASUNA: AURTENGO LAN-ILDO TEKNIKO ETA POLITIKOAK

Joan den urteko uzta kaskarren ondorioek agerian utzi zuten baratzegintza ekologikoan diharduten etxalde askoren egiturazko ahulezia. Ekoizpen galerak, errentagarritasun mugatua eta lan-karga handia pilatu ziren, eta guzti horrek proiektu askoren iraunkortasuna auzitan jarri zuen.

Testuinguru horretan, taldeko urte hasierako bileran **2025erako lehentasunak** zehaztu genituen, ikuspegi estrategiko batetik: **lan kargaren antolaketa, sostengurako politika publikoak eta tresna teknikoak uztartzea.**

Ardura nagusietako bat **lan-karga** izan zen, eta hau nola arindu. Helburu horrekin eratu zen **Ortulanguntza** egitasmoa Debagaraian, **baratzezainen egunerokotasuneko lan-karga arintzeko tresna**. Ortulanguntza zerbitzua baratzegintza agroekologikoak behar duen egiturazko sostenguaren parte modura ulertzen da, gerora ordezkapen sistema egoki bat sustatzeko ere egokia izan daitekeen formatua. Gaur gaurkoz **Gipuzkoako bi bailaratan** dago horrelako figura bat, baina egindako lana baliatuta, beste bailaretara zabaltzeko bidea errazten da.

Auzolanak bultzatzea ere garbi ikusten da, lan karga puntualak arintzeko ez ezik, **babes sarea** egiteko bide bezala. Biolurren baitako talde ezberdinen artean lantzeko gaia dela uste da.



Bestalde, zaila den arren, **dirulaguntzen politiketan eragitearen garrantzia** irten zen bileran. Zentzu hortan, alde batetik, ATP bakoitzari dagokion dirulaguntza kopurua handitzearen beharra irten zen, baratzegintza ekologikoa eskala txikian eta intentsitate handiko lan ereduan oinarritzen delako.

Horrela, inbertsioetarako laguntzetan aldaketak eskatu izan ditugu aldundiko bileretan; ekoizleen errealitatetik abiatu behar dela esan dugu, irizpide estandarizatuak sortzen dituzten bazterketak saihestuz, eta bigarren eskuko inbertsioak onartzeko eskatuz, adibidez. Positiboki baloratu dugu aurtan, inbertsioetarako dirulaguntza deialdian, ATP bakoitzarentzat gutxienez %30eko dirulaguntza oinarria izatea.

Dena den, dekretuak erakusten du **erakundeen jardunak oraindik ere ez dituela baratzegintza ekologikoko proiektuak ardatz estrategikotzat hartzen**. Beharrezkoa da laguntza politikak sakonetik berrikustea, trantsizio agroekologiko baterantz urrats eraginkorrak emateko.

Marko horretan kokatzen da Amillubitik Kataluniara egindako bisita ere, non **Contracte Agrari de Collserola-ko esperientzia** aitzindaria ezagutzeko aukera izan genuen.



Administrazio lokalak nekazal jarduera interes publikokotzat hartzen duen ikuspegian oinarrituakoa da, eta **kontratu bidez, lurraldeko eragile publikoek konpromiso ekonomikoak hartzen dituzte ekoizleek egindako zerbitzu ekosistemiko batzuk ordaintzeko.**

BARATZEZAIN TALDEA

Lurraren kudeaketa agroekologikoa, biodibertsitatearen zaintza eta hurbileko elikadura sistemaren sendotzea bermatzen dituzten zerbitzuak dira besteak beste.

Tresna honek bestelako harreman politiko bat proposatzen du nekazarien eta erakundeen artean, zerbitzu hauek kontenplazten ez dituzten laguntza logika soilak gaindituz.

Esperientzia horretatik abiatuta, **Debagoienean antzeko mekanismoak txertatzeko aukera** aztertzen gabiltza bailarako eragileekin elkarlanean, udalerrri eta mankomunitateen eskumenak aktibatuz.

Helburua tokiko nekazaritza politika propioak eraikitzea da, lurraldearen beharrekina eta tokiko ekoizpen sarearekin koherenteak izango direnak.



Nola ez, urtero legez, **formazioak eta lan teknikoak egiten jarraitu dugu** teknifikazio maila hobetzeko.

Joan den Apirilaren 9an Burugorriin, Hazparneko nekazal eskolan irakasle den Pantxika Halsouet-ek eskaintako ureztapen beharren inguruko formazioan, **uraren kudeaketa eraginkorra lantzeko tresnak** jaso genituen.

Beste adibide gisa, belarraren maneia arintzeko paperezko **akoltxatuarekin baratzezain batzuk** ere egin dituzte **frogak**. Gustora agertu dira emaitzekin eta datorren urtean material honen erabileran sakontzeko asmoa agertu dute.



Aurtengo lanak argi utzi du baratzegintza ekologikoaren jasangarritasuna ez dela ahalegin individualaren menpekoa soilik. **Tresna kolektiboak, politika publikoetan eragiteko gaitasuna eta ezagutza teknikoa funtsezko osagaiak dira.**

Testuingurua zaila bada ere, landutako hauek erakusten dute **bideak badaudela**: lan-karga arintzeko egiturak sortzea posible dela, erakundeak interpelatzea beharrezkoa dela, eta praktikatik abiatuta alternatibak eraiki daitezkeela. **Hori guztia posible egiten duena sarea da.**

Baratzegintza ekologikoak badu etorkizuna, baina soilik baldin eta elkarrekin eraikitzen badugu, lurra lantzen dugunon duintasuna erdigunean jarritz.



ABELTZAIN TALDEA

HEGAZTI-GRYPEA

Errealitate epidemiologikoa eta hegazti-hazkuntza “merkea”

Hegazti gripea hedabide ezberdinetako titular izatera itzultzen da aldiro, ia beti alarma-tonuarekin gainera, errealitate epidemiologikoarekin kontrastean. Gaixotasuna larria da, eta zaintza eskatzen duen arren, gaia komunikabideetan azaltzen duten bezala gehiegizkoa izaten da askotan, eta herritarren artean beharrezkoa ez den izua sortzen du. Beldur sozialak, **benetako arriskua islatzea baino gehiago, modu bidegabean zigortzen ditu eredu ekologikoak eta estentsiboak**, hain zuzen ere birusa zabaltzen gutxien laguntzen dutenak eta konfinamendu-neurriak gehien pairatzen dituztenak.

Historikoki, hegazti migratzaileen pasabideari lotutako agerraldiak erregistratu izan dira eta basa-hegaztietara mugatu dira, nahiz eta, bakarren batek hegazti-ustategiei eragin. Albaitaritza-zaintzako sistemei esker, **agerraldirik konplexuenak azkar kontrolatu izan dira**. Hala ere, kasu isolatu bakoitza osasun-krisi handiago baten hasiera balitz bezala ugaltu ohi da komunikabideetan, etengabeko mehatxu baten pertzepzioa elikatuz.

Epidemiologikoki, gehien kezkatzen duten hegazti-gripearen azpimotak, patogenizitate handikoak alegia, H5 eta H7 azpimotak dira, eta hilkortasun tasa handiak eragin ditzakete etxeko hegaztietan. Hala ere, **gizakienganako transmisioa oso arraroa** da oraindik, eta birus zirkulatzaile gehienak patogenizitate txikikoak dira.



Benetako arazoa ez da birusak naturan duen presentzia — oreka ekologikoaren parte den zerbait baita—, baizik eta **zer baldintzatan amplifikatu daitekeen**.

Hemen, hegaztien **ekoizpen-ereduak berebiziko garrantzia** hartzen du. Ustiategi intentsiboek, milaka hegazti pilatzen dituzte, aldagarritasun genetiko eskasarekin, eta honek benetako azeleragailu epidemiologiko gisa funtziona dezake. Dentsitateak, estresak eta hegaztien arteko hurbiltasunak transmisio azkarra ez ezik, birusaren birulentzia areagotu dezaketen mutazioak agertzea errazten du. Eta, hala ere, komunikabideetan zabaltzen den diskurtsoak sektore osoari berdin eragingo balio bezala aurkezten du arazoa, eredu bakoitzak gaian duen ardura kontuan hartu gabe.



Paradoxikoa benetan: **eredu intentsiboek sortzen dute arriskurik handiena**, baina **eredu ekologikoek jasaten dituzte** gehien, izu-ikara sozialaren eta osasun-murrizketen **ondorioak**.

Agintariek basafaunarekin kontakturik ez izateko hegaztien konfinamenduak zehazten dituztenean, ekoizpen ekologikoak dira, hain zuzen ere, neurri horiek gehien pairatzen dituztenak, nahiz eta erantzukizun epidemiologikoa oso txikia izan.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da **hausnarketa** bat berreskuratzea: **hegazti-hazkuntza merkea ekoiztearen kostua**.

ABELTZAIN TALDEA

Hegazti-gripea ez da ekoizle ta albaitarien arazoa; errentagarritasuna muturrera eraman duen nekazaritzako eredu industrialaren sintoma baizik.

Hegazti industriako nabe erraldoiak benetako arrisku epidemiologikoak dira, eta hauek suposatzen duten eragina (osasun-arriskua, ingurumen-inpaktua eta agerraldi bakoitzean animaliak masiboki hiltzea) islatzen ez duten gutxieneko prezioetan dago oinarrituta.

Hegazti gripearen mehatxua murriztu nahi badugu, zaintza eta biosegurtasunetik haratago joan beharra dugu. **Beharrezkoa da ekoizpen-eredua birplanteatzea: dentsitateak murriztea, mugikortasuna txikitzea, eredu ekologikoa edo estentsiboa sustatzea, hegazti lerroak genetikoki dibertsifikatzea eta animalien ongizatea ardatz nagusi gisa ezartzea.** Izan ere, milioika hegazti, muntaketa-kate batean pieza trukagarriak balira bezala ekoizten jarraitzen dugun bitartean, hegaztien gripeak itzultzeko aukera aurkitzen jarraituko du.

Azken batean, eztabaida berriz orekatu behar da. **Herritarrek informazio zorrotza behar dute, ez alarmismoa;** eta eredu guztiak ez orokortzea eta praktika arduratsuagoekin lan egiten duten ereduak balioan jartzea beharrezkoa da.

Hegazti gripea hurrengo urteetako erronka bat izango da, baina argi izan, **hegazti hazkuntza eusten duten ereduak erabakiko dute, birusak berak baino gehiago** agian, gure gizartean izango duen eragina.

Biolurreko abeltzain taldean, orain arte bezala, prebentzioa lantzen eta animalien osasuna indartzen duten neurriak sustatzen jarraituko dugu.



TALDEAREN PARTE-HARTZEA EREDU EKOLOGIKOAREN BALORAZIOAN



Abeltzain taldeak azken hilabeteetan **parte-hartze aktiboa** izan du hainbat foro eta lan-esparru estrategikotan.

Gipuzkoako Foru Aldunaika (GFA) osatu duen **Osasun Mahaiaren bilkuretan** modu jarraituan parte hartu dugu, sektoreko eragileekin batera osasun publikoak dituen erronken inguruan eztabaida sustatzen. Bestalde, estatu mailan garatzen ari den **mingain urdinaren aurkako txertoaren eraginkortasunari** buruzko **entsegu baten** gabiltza. Gure kide den etxalde batean hartu genituen laginak eta emaitzen kontraste zientifikoan gure aletxeoa jarri dugu.

Aldi berean, **foro guztietan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren balioa nabarmendu dugu**, bere garrantzia azpimarratuz animalien ongizatearen eta ingurumenaren ikuspegitik, baina baita ekoizleen iraunkortasun ekonomikoaren aldetik ere.

Azkenik, **Debagoienan lantzen ari den nekazal kontratuaren diseinuaren lantaldean parte hartzen gabiltza**, abeltzainen behar errealak entzun eta tokiko eragileen eskutik eredu lantzeko dinamika irekia sustatuz. Ekimen honek aukera ematen du **kudeaketa-esparru egonkorrago eta bidezkoago bat** sortzeko.

Aurrera begira, halako ekimenetan parte hartzen jarraituko dugu, sektorearen beharrei erantzuteko eta lankidetzaren sareak sendotzeko. Berri ematen jarraituko dugu..

ABELTZAIN TALDEA

PROIEKTU ETA KIDE BERRIA Danel Olano Eizagirre, Azpeitia

Baserritartu zara, lanbidea ere bertatik ateratzeko asmoz? Zergatik?

Kaletarra izanda ere, beti gustatu izan zait baserri mundua. Buruan eduki izan dut baserritik bizitzeko ideia baina bizimodu duina ez zelakoan inoiz ez nion ideia horri seriozki heldu. Duela bost urte inguru baserri bila hasi ginen, bertan bizi eta ganadu pixka bat izateko. Ez nuen bertatik bizitzeko asmorik baina behin baserrian egonda bertatik bizitzeko desioa pizten joan zen eta proiektu batzuk ezagutuz aukera bezala ikusi nuen. Gaztenek-en berri banuen eta nekazal bulegora joan nintzen informazio bila.

Esne behiekin hastea izan da hasieratik zure asmoa? Gaztagintzan ere hasteko asmoa duzu ez?

Bai. Gazteago nintzela lagun batzuen baserrira joaten nintzen, bertan esne behiak zituzten eta haiek irakatsi zidaten behiak gobernatzen eta bertan afizioa sortu zitzaidan. Ardiak eta ahuntzak ere oso gustuko ditut baina batez ere behiak. Argi neukan esnearekin lotutako zerbait egin nahi nuela. Duela pare bat urte etxean gazta egiten hasi nintzen, interneten begiratzuz, bizilagunei galdetuz...eta oso gustora aritzen nintzenez, gaztagintzan aritzeko gogoia sartu zitzaidan.

Zer zailtasun topatu dituzu bidean?

Lehenengo zailtasuna nekazal bulegoan topatu nuen, teknikariarekin bildu eta ea baserritik bizitzea zer zen ba ote nekien esan zidan, ez zegoela bat ere erraza. Etxera itzuli nintzen buru makur. Motibazio handia nuen eta berriz itzuli nintzen Gaztenek-en berri izatera. Agian zailtasun handiena prozesua pazientziarekin hartzea izan da. Buruan ideia izatetik obrak hastera bi urte baino gehiago igaro dira eta martxan jarri eta diru sarrerak izan arte denbora pasako da. Denbora hortan bizi egin behar da, betiko gastuei inbertsio berriak gehitzen zaizkie eta ez da erraza.

Bestalde gaztenek-etik 5 urtera gutxieneke UTA bat



osatzea eskatzen da. Nire kasuan UTA bat osatzeko behar baino abere gehiago izan beharko nituzke. Nire ustez ez dago ongi baloratua, UTAz aparte errentagarria izatea irizpide nahikoa izatea ondo legoke.

Zer laguntza izan duzu guztia aurrera eramateko?

Ekologikoa aritu nahi nuela argi nuen eta Biolurrera jo nuen hasieran, bilera batzuk egin genituen teknikari eta albaitariarekin eta hasierako urratsak eman genituen, ingeniariarekin elkartu eta ikuitu eta gaztandegiko planoak egiteko. Gaztenek-en sartzea pentsatu nuen, eta nekazal bulegotik Lurgintzako tutore bat izendatu zidaten 5 urterako. Berak kudeatzen du paper gestio guztia eta zalantzak argitzen dizkit. Berak egiten du proiektuaren jarraipena eta momentu bakoitzean egin behar dena adierazten dit. Ekonomikoki laguntza handia izango da Gaztenek eta Lehiatutik jasoko dudana, bestela ezinezkoa izango litzake. Eta nola ez, familiak ematen didan babesa, zentzu guztietan, haiek gabe ere oso zaila izango litzateke. Proiektu ezberdinak ere ezagutu ditut eta esku zabalik hartu naute, informazio baliagarria jaso dut beraiengandik eta baita ideia berriak ere.

Biolurren ere abeltzantza taldean parte hartzen duzu, lagundu dizu zure bidean?

Bai. Taldean gai ezberdinen inguruan elkarbanatzen den informazioa jaso dut eta baliagarria izaten da. Bilera batzuetan ere parte hartu dut eta beti ikasten da zerbait. Formakuntza ere eskaintzen da intereseko gaien inguruan. Antzerako jardueretan dabilen jendea ezagutzeak bide berriak irekitzen ditu harreman berrietarako, aholkuak eskatzeko, elkarren artean laguntzeko...

OKIN TALDEA

HoBBea. EMAITZAK

Gure Lurriñako aurreko aleetan kontatu bezala, BLE, HAZIALDEKO eta BIOLUR elkarteek elkarlanean garatu dugu "Lurraldeko ogi ekologikoa denontzat HoBBea da" proiektua, 2024ko negutik 2025eko udazkenara arte iraun duena. Proiektuaren **helburu nagusiak elkarlana, ezagutza kolektiboa eta jendartearen aldaketa kulturala sustatzea** izan dira, laborari-okinaren lanbidea eta elkarreetan egiten dugun lana balioan jarritz eta gure arteko harremanak indartuz. Prozesua **bost galdera gakori** erantzunak eta definizioak bilatuz antolatu dugu; horretarako, topaketak eta bisitak egin ditugu, material ezberdina sortu eta jendarteratuz.

Lehen saioa BLEren eskutik izan zen, 2024ko maiatzean, **Jatsun**. Hazi herrikoien inguruan jardun genuen: zer diren, nola ezaugarritzen diren, zein barietate hautatu... eta abar.

Biolurrek antolatuta bigarren topaketa Eibarren egin genuen abenduan; gure ogiaren balioak identifikatu eta komunikatzeko baliatu genuen. Zergatik jan behar dugu ogia?, Zerez osatua dago gure orantza?, Zein dira bere onurak eta eraldaketa-prozesuak?, Zein da ogiaren nutrizio-balioa?... galdera horiei guztiei erantzuteko, Frantziatik etorritako Christian Rémésy nutrizio-aholkularia eta Myriam Pousou okina izan genituen gurekin. Arratsaldean, gure ogiaren balioak komunikatzeko hitz egokiak bilatzen jardun genuen.



Hirugarren eta azken topaketa **Erripodasen** egin genuen, joan den ekainean, Hazialdeko elkarretearekin. Bertan, **ale osoko zereal ekologikoen eta antzinako barietateen papera osasunean** zein den aztertu genuen. Eguna Iriarte familiaren etxaldeko gari-sailak bisitatuz hasi genuen, eta ondoren, nekazaritza ekologikoan erreferentzia den gonbidatu berezia izan genuen: María Dolores Raigón ikerlaria, solasaldi interesgarria eskaini ziguna.



Gure ogia saltzen dugun dendetan, azoketan eta plazetan zabaltzeko sortu dugun triptikoak jasotzen ditu era laburtuan **trasmititu nahi ditugun balioak**.

HAZI HERRIKOIAK

Biodiversidad cultivada.
Semences paysannes.

"Gure jakintza kulturala berreskuratuz, lurraldeko biodibertsitatea eta aniztasuna zainduz, nekazarien esku dauden eta gure lurraldeari ongi egokitzen diren haziak dira".



ORANTZA ETA HARTZIDURA LUZEA

Masa madre y larga fermentación.
Levain et fermentation longue.

Orantzatik abiatuz egiten dugu ogia, gehigarri eta legami industrialik gabe. Hartzidura luzeek, ogiaren berezko erritmoa errespetatzen dute eta lurrinak agerian uzteaz gain, digerigarritasuna hobetzen dute. Elikatzen gaituzten ogi osasungarriak dira gureak.



NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Agricultura ecológica.
Agriculture bio.

Lurrari eta bizitzari lotutako nekazaritza da gurea, toxikorik gabekoa eta lurraren emankortasuna hobetuz, ingurumenaren eta pertsonen osasuna indartzen duena.



DENONTZAKO OGIA

Pan para todo el público.
Pain pour tout le monde.

Kulturarekin errotutako eguneroko elikagaia da ogia eta etxe guztietarako izatea nahi dugu lurraldeko ogi ekologiko hau: eskuragarria, elikagarria eta kalitatezkoa.



ERROTA ARTISAUA

Molino artesano.
Meunerie artisanale

Etxalde berean dugun harrizko errota, nekazariok zein okinak, ehotzen dugu irina. Jatorrizko alearen nutrizio propietateak mantentzen dituen artisautza lana da.



Leguntzaila:
• EURORÉGION
• EUROESKUALDEA
• EUROREGION

OKIN TALDEA

LABORARI - OKINENTZAKO GIDA

Urte asko daramatzagu okin proba egiten, taldearentzat formazio gune garrantzitsua baita. Urtero-urtero, gure ogiak egiteko erabiltzen ditugun irinak aldeztatik aurretik taldean probatu, analisiekin kontrastatu eta kolektiboki erabakitzen dugu zein izango den irinen nahasketa. Joan den irailaren 13an elkartu ginen Haristizabal baserrian, 11 gari lagin eta 3 espelta lagin frogatzeko. Aurtengoan ere, lurraldeko ogia!

HoBBea proiektuaren baitan, hazitik ogirako bidean urteetan pilatutako esperientziak eman digun jakintza, eta sortu dugun ezagutza berria, **gida** batean bildu ditugu, **ogigintzan hasi nahi duenaren eskura jartzeko eta nekazaritza zein ogigintza iraunkorragoa eta osasuntsuagoa sustatzeko asmoz.**

Dokumentu irekia eta bizia da, lanbidean ikasten eta formatzen goazen heinean beharrezko diren aldaketak jasotzeko helburuarekin sortua.

HoBBeak egiten dugunaz jabetzeko, ahaldundu eta komunikaziorako tresnak sortzeko balio izan digu. Bideari eutsiz, norantza berean jarraituko dugu!



ARTO BELTZAZ TERTULIAN

Okin taldean, bakoitzak ogia egiteko bere moduak eta ogi motak ditu, esperientzia eta ibilbidearen arabera ikasi eta praktikan jarritakoak. Norbanakotik taldera jakintza hori ekartzean, berrikuntza eta ezagutza berria sortzen da, eta horrek aberasten du eta indartzen du kolektiboa.

Zentzu honetan, pasa den azaroaren 11n, okin taldeko hainbat kide Amillubi baserrian elkartu ginen arto beltzaren inguruko tertulian.

Arto beltzarekin egindako ogien eskaria handitzen ari da, eta okinok ogi mota hau garatzeko beharra ikusi dugu. Orain arte, bakoitza bere kabuz ibili da, elkarri komentarioak eginez eta bakoitzak bere era probak egiten.

Arto beltzaren inguruan sakonago hitz egiteko elkartzearen beharra sentitu genuenez, formakuntza-espazio informal modura jardun genuen saioan. Bildutako bakoitzak bere ogia ekarri zuen, eta banan-banan azaldu genuen arto beltzarekin ogia nola egiten dugun, gure errezetak partekatuz. "Kata" interesgarri bat ere egin genuen!

Aurrerantzean, elkarrekin ikasten eta proba berriak egiten jarraitzea dugu helburu.



OKIN TALDEA

TALDEKO KIDE BERRIAK

Poliki poliki, okin gazte berriak agertzen ari dira taldean! berri ona guretzat!

Gipuzkoatik **Nafarrora** joandako bi kide zereal eskaera bateratuan parte hartzen hasi dira. Baztanen **Aitzol** Iturbe eta Etxalerren **Aloña** Gonzalez eta **Ander** Amundarian .

Bestalde **Aldaba Zaharreko** okindegian **Arena** eta **Alejandro**, **erreleboa hartuta**, badabiltza martxan denboratxo batetik hona proiektuan murgilduta.

Errezilgo **Irure Txiki** baserrian **Mari** **dabil** Edurnerekin batera **ikasten** eta esku hartzen, eta Goiabeko **Ioritz** **ere** okintzara batu da lanbidea ikasteko asmoz.



Orain hilabete batzuk berriz, Goierriko Altzaga herrian, **Artzabaltza** **baserrian**, **Sophi** eta **Maialenek** martxan jarri dute okindegi berri bat.



ARTZABALTZA OKINDEGIA

Non kokatzen da okindegia?

Okindegia Altzagan dago, Goierriin. Artzabaltza baserrian. Bertan egin dugu obra.

Zergatik erabaki duzue okintzan hastea?

Gure asmoa baserritik bizitzea da. Horregatik, beharrezkoa ikusi genuen dibertsifikatzea. Duela 3 urte baratzearekin hasi ginen, zukuak eta sagardoa egiteaz gain. Eta orain ogia egiteko urratsa eman dugu. Ilusioa egiten digu naturatik gertu bizi eta naturarekin eta naturarekin sortzea eta kalitatezko produktuak eskaintzea.

Nola aurreikusten duzue komertzializaioa?

Oraingoz asteartetan Beasainen egoten gara azokan eta arratsaldetan, azokan saltzen ez duguna eskaintzen diogu Itsasondo eta Altzagako jendeari. Astelehenetan ogia Legorreta, Itsasondo eta Ordiziako dendetara eramaten dugu. Pixkanaka zabaltzea gustatuko litzaiguke...

Zergatik batu zarete Biolurreko okin taldera?

Laguntza-taldeak sortu behar direlako. Okin-taldeak beso zabalik hartu gaitu (mila esker Itxasori, Kepari eta Enekorri, dakiten guztia erakutsi baitigute), eta asko gustatzen zaigu zalantzak, ideiak eta abar partekatzeko talde bat egotea. Taldea indarrak eta energiak batzeko aukera gisa ikusten dugu, kalitatezko produktuak eskaintzeko, gero eta gehiago izateko.




FRUTAZAIN TALDEA

INTXAURRAREN EULIAREN ERAGINA AZTERTZEN JARRAITU DUGU AURTEN

Ikusita intxaurraren euliaren (*Ragholetis completa*) arazoa handia dela eta eragiten dituen kalteak gutxitzeko ahaleginetan, Aldundiak martxan jarritako entsegu batean parte hartu dugu Biolurkideok.

Entseguaren helburuak batetik, euliaren hegaldia eta zikloa ezagutzen jarraitzea, eta bestetik, harrapaketa edo tranpeo masiboaren bitartez kontrol bat egitea posiblea den aztertzea izan dira. **Harrapaketa masiboan saiatzea hobestu da kontrol modu bezala**, gure intxaur sailen ezaugarriengatik aukera zaila delako tratamendu fitosanitario eraginkorrak ematea.

Lan honetarako Asteasuko Melilla baserrian kokatzen den 7800 m²-ko intxaur sail bat erabili da. Euliaren hegaldiaren kontrolerako **Econex** etxeko **tranpa itsaskor horiak** erabili dira, elikadura erakartzaile espezifikoarekin batera.



Euli helduen harrapaketa masibo saiakerarako **3 azpisail** antolatu dira: kontrolerako 2600 m²-ko sail bat eta tamaina bereko beste 2 azpisail bi produktu komertzial probatzeko. Nekazaritza ekologikoan erabil daitezkeen **Flypack Completa** eta **Ceratinex Pack** tranpak probatu dira, 100 tranpa hektareako dosian jarrita.

Flypack Completa ontziak euli hauentzako elikadura erakartzaile bat gordetzen du. Behin barrura sartuta, taparen barrualdean igurtzita duten intsektizida sintetiko batek (*Deltametrina*) akabatzen ditu euliak. Kontraesana sortzen zigun tranpa hau ekologikorako gomendatzea baina, ENEEK-etik baieztatu ziguten salbuespen gisa tranpa mota hau baimenduta zegoela zenbait euliren kontrolerako, tartean intxaurrarena. Beraz, bazkide batzuen galderari erantzuteko, **entsegu honetan bere eraginkortasuna probatzea planteatu genuen.**



Ceratinex Kit tranpak euli tefritidoen familiakoak erakartzen ditu. Botila arruntak dira, zulotxodunak. Uretan disolbatutako elikadura erakartzaileari esker euliak zulotxoetatik sartu eta irten ezinda, uretan erorita bertan itotzen dira.



FRUTAZAIN TALDEA

ENTSEGU HONETATIK ATERATAKO ONDORIO BATZUK:

- **Entsegu sailean intxaurretan izan den arazo fitosanitario nagusia *R. Completa* izan da.** Uzta aldetik urte ona izan zitekeen arren, intxaurren zati handi bat belztu da euliaren eraginez. Entseguan ikusitakoaren arabera intxaurren %50etik gora partzialki edo guztiz belztuta agertu dira.
- **Euliaren hegaldia uztailaren bigarren astean hasi eta iraila bukaera aldera amaitu da.** Temperatura baldintza minimo batzuekin batera joan da hegaldia eta temperatura altuen ondorioz euli kopuruetan pikoak nabarmendu izan dira.
- **Hegaldiaren kontrolerako Econex etxeko erakartzaile espezifikoek ez dute funtzionatzen,** ez dute apenas eulirik harrapatu. **Flypack Completa lan honetarako ona** izan daitekeela ondorioztatu da. **Ceratinex Kit tranpek ez dituzte intxaurren euliak harrapatu,** ikusi dugu ez duela funtzionatzen euli mota honen kasuan.
- **Harrapaketa masiboaren teknika ez da eraginkorra izan,** ez Flypack Completaren kasuan, ezta Ceratinex Kit tranparen kasuan. Intxaur laginketa egin denean, euliak jotako intxaur kopuru baxuena kontrol sailean izan da. Logika eza honen arrazoiak, gure ustez, **esperimentuaren diseinu ez egoki bati erantzuten dio.**
- **Tranpen aukeraren balorazio ekonomikoa egitea ezinbestekoa da.** Nolabaiteko kontrola eragin dezaketen arren, gastu bat suposatzen dute eta intxaur ekoizpen komertzialerako gastuak merezi duen aztertu behar da.



ETORKIZUNeko SAIAKERETARAKO AZTERGAI BATZUK ERE MAHAI GAINEAN DITUGU:

- Flypack-ek daukan **elikadura erakartzaile eraginkorra** bestelako tranpetan erabiltzeko aukera aztertzea, botiletan esaterako. Horrela tranpek duten intsektizida sintetikoa erabiltzea saihestuko genuke.
- **Flypack Completa sail handiago batean** bera bakarrik saiatzeari, izan ere saltzaileek harrapaketa masiborako gomendatzen duten gutxieneko azalera 5000 m² dira.
- **Arbola bakanen kasuan,** etxerako intxaurren kasu, Flypack tranpen **dosia handitzea aukera** bat izan daiteke, ahalik eta euli gehienak harrapatu eta kaltea gutxitzeko.

Entseguak ez digu argi gehiegi ekarri, baina zer edo zer ikasi dugu. **Norbaitek interesa edukiko balu, txosten osatuagoa bidaliko zaio.**





FRUTAZAINTALDEA

FRUTAZAINTZA EKOLOGIKOA BERTATIK BERTARA

Biolurren frutazaintza ekologikoa sustatu nahian gabiltza, eta bide horretan txango bat antolatu genuen joan den **uztailaren 29an**. Egunari zukua atera genion eta **hiru bisita** egin genituen.

Lehenengoa, **Ahaxeko Erroak** mintegira. Bertan jaso gintuen Mahaño Lanathouak. Aire librean duen 1000 m²ko mintegiaren funtzionamendua eta lan egiten duen frutarbolan (sagararak, garrazkiak, gereziak, gaztainak, pikuak, aranak,...) inguruko azalpenak eman zizkigun; erabiltzen dituen oinen ezaugarriak ere azaldu zizkigun.

Halaber, kanpo mintegian frutarbolak, baratzarekin, sendabelarrekin eta ongarri berde edo gari beltzarekin hiru urtean behineko errotazioak nola egiten dituen kontatu zigun. Kuriosoa izan zen baita ikustea 100 m²-ko negutegia, eta nola barruan antolatua duen espazioa zitrikoen hazkunderako. Erroak proiektuan bada laborantza sintropikoari buruzko lanketa ere, eta aniztasunaren eta erregenerazioaren hainbat kontu partekatu genituen Mahañorekin. Urte amaieran gaudenez, garaia da hurrengo urteko landaketak pentsatzeko, eta Erroak-era bisita baliagarria izango zaigu horretarako.



Ahaxetik Doneztebera iritsi ginen Izpegitik, eta **Kibbi Sateko Lander eta Maiterekin elkartu ginen**. Kibbi Sat 2008an abiatu zen kiwi ekologikoaren proiektu aitzindaria da eta gaur egun nekazaritza birsortzaileruntz ere pausoak ematen ari dira.

Kiwiak bi sistematan dituzte, Pergola eta T-bar modutan; nahiz eta azken horiek errazagoak izan kimatzeko, Landerrek Pergola sistema maite du, eta ohitura horri eusten dio. Azalpen xehe asko jaso genituen hemen ere: kiwi barietateak, oinak eta zikloa; landaketarako eta zainketarako irizpide teknikoak; gaur egungo klima aldaketaren eraginak; uztaren inguruko lanak eta emaitzak. Kanpoan bisita egin ondoren, uza non eta nola biltzen duten eta ontziratze eta merkaturatze prozesuaren inguruko azalpena ere eman zigun Maitek, baita kiwi eta sagar zuku desberdinak dastatzeko aukera ere! Oso eskertuta eta zuku botila batzuk hartuta joan ginen Etxalarreko frontoira bazkaltzera, hirugarren bisitara hurbiltzeko.



Horrela, bazkalostean, **Etxalarko Ainitzako Baso-jangarria aire libreko mintegia** bisitatu genuen bertako Audry eta Aimarren eskutik. 1.500 m²-ko eremuan sintropiaren esentzia bizitzeko gonbitea egin ziguten, eta isiltasunean egin genuen ibilaldi txiki bat, zentzuen bitartez inguruaz jabetzeko. Ondoren, mahai bueltan jarri eta euren ibilbideaz eta ikasi dituztenez hitz egin ziguten, eta nola lotzen dituzten laborantza sintropikoa, mintegiko lanak eta sukaldaritza. Esperimentazioa da proiektu honen oinarria, eta autonomia, biodibertsitatea eta bestelako ekoizpen eredu bat dituzte helburutzat. Iparraldeko Biriatu edota Kanboko azoken inguruan ere egon ginen solasten eurekin.

Egun borobila izan zen, ikaskuntzaz, inspirazioz eta harreman ederrez betea. Eskerrik asko ateak zabaltu zizkiguten guztiei, euren ezagutza eta esperientziak hain eskuzabal partekatzeagatik. Halako egunak indarra ematen digute frutazaintza ekologikoaren bidean aurrera egiteko.

FRUTAZAIN TALDEA

FRUITU TXIKIEN PROIEKTU BERRIAK

Gaur egun, gure inguruko denda txikietako apaletan eta azoketan fruitu txikiak gero eta ohikoagoak dira: fresko, mermelada edo zuku moduan. Frutagintza taldean ere azken urteetan ibili gara gai hau lantzen, eta askotan aukera polita izaten da etxaldeetan ekoizpena pixka bat dibertsifikatzeko. Horren adibide ditugu Ane Aranburu eta Ana Muñoa. Biek jarri dute martxan euren proiektu berria, eta taldera ere batu dira. Galdera-sortari emandako erantzunak hemen bildu ditugu.



Ane Aranburu Segurola, Ertziñeko, Aizarna



Ana Muñoa Ubis, Basoberri, Zegama

Fruitu txikien ekoizpenen hasi zarete, zerk eraman zaituzte erabaki hau hartzera?

A.A.: Gure arrautzen ekoizpena dibertsifikatu nahi genuen eta gure lursailen ezaugarriak kontuan hartuta, fruitu txikien aukerak aztertzen hasi ginen.

A.M.: Lehen pinudi bat zen, eta, beraz, pinuak moztu ondoren, geratzen zen lurra oso azidoa zen, eta azidotasun hori gustuko zuen labore bat bilatzen nuen. Kantabrian fruitu txikiak landatzen aritu nintzen, eta konturatu nintzen han eta Asturiasen nahiko landatzen zirela, baina hemen oraindik ez zegoela inor hori egiten, eta berritzailea irudituz zitzaidan.

Bazeneukaten formaziorik edo esperientziarik frutagintzan?

AA.: 2023an Intiako ikastaro bat egin nuen, hain zuzen, fruitu txikien ingurukoa, eta horrekin batera gure zonaldeko ahabi eta mugurdi ekoizpenen inguruko argitalpen batzuk irakurri nituen. Batez ere Asturias eta Kantabrian argitaratu dira lan batzuk arlo honi lotutako esperientziak jasotzen dituztenak.

A.M.: Profesionalki ez, baina nire familian, Errioxan, beti aritu naiz fruta-arbolen laboreei laguntzen..

Zer berezitasun dute zuen ekoizpen proiektuek?

A.A.: Nagusiki ahabiak landatu ditugu gure oilategiaren ondoko lursailean. Gure asmoa da arrautzekin batera fruitu sasoian jasotakoa gure merkatuan zabaltzea.

A.M.: Proiektu txikia da, eta fruitu txikiak, ahabiak, mugurdiak, masustak, arrampak eta aroniak nahasten ditu. Baserrian hasi naiz obradore txiki batekin, freskoan saltzeaz gain, eraldatuta ere saltzeko. Asmoa marmeladekin hastea da, eta gero, etorkizunean agian zukuak egitera animatuko naiz.

Hasi al zarete uzta jasotzen eta saltzen? Nola planteatzen duzue fruitu hauen komertzializazioa?

A.A.: lazko udazkenean egin genuen landaketa, eta aurreikusten dugu bi urte barru hasiko garela lehendabiziko uzta jasotzen. Fruituak nagusiki freskoan saltzea da gure asmoa eta portzentaje txikiago bat eraldatuko dugu marmeladetara. Arrautzekin eginda daukagun merkatuan egin nahiko genuke komertzializazioa.

A.M.: Fruta-arbolak direnez, gero eta emankorragoak dira urteak igaro ahala, eta, beraz,

FRUTAZAIN TALDEA

pixkanaka merkaturatzen dira. Oraingoz, uza biltzen dudan lehen urtean nago, eta, beraz, ez dut fruta askorik. Goierriko denda ekologikoetan saltzen dut, baita herrian eta inguruetan zuzenean saltzen diedan partikularrei eta azoka bereziren batean edo bestean ere. Etorkizunerako asmoa azoka gehiago eta asteroko azokaren bat egitea da.

Ez da ohitura askorik egon hemen fruitu txikien kontsumoan, aldatu dela uste duzue?

A.A.: Arrautzak eramaten ditugun saltoki batzuk aipatu digute badagoela eskaria. Gure etxean ere fruitu txikien kontsumitzaileak bagara eta marrubi, mugurdi eta masusta gutxi batzuk badauzkagu geure kontsumorako.

A.M.: Ez dago ohitura handirik, jende askok jarraitzen du galdetzen ea basaranak diren. Baina uste dut hori aldatzen ari dela, azken finean gero eta presenteago daukagu osasuna eta, beraz, jan egiten dugu. Fruitu txikiak azukre gutxien duten frutak dira; beraz, azukre gutxiko dieta askotan baimenduta daude. Gainera, beren propietate antioxidatzaileengatik, gero eta nutrizionista gehiagok gomendatzen dituzte, eta jendeak ezagutzen ditu.



Proiektua martxan jartzeko ze traba, edot zailtasun nabarmenduko zenukete?

A.A.: Burokrazia handia. Dedikazio handia eta denbora asko eskatzen du eta bestela ere sektore honetan lan asko izaten da ekoizpen on bat aurrera ateratzeko, berez.

A.M.: Hasiera da zailena, kontuan hartu beharreko gauza asko baitaude. Hasieran denok ilusio handiz hasi eta gauza gehiegi egin nahi izatearen bekatua egiten dugula uste dut. Nik, nire kasuan, proiektuak utzi ditut ustiategian etorkizunerako aparkatuta, erraza dirudien zerbait beti zailtzen delako eta alde guztietatik arazoak sortzen direlako. Batzuetan frustragarria da eta gau askotan galdetzen diot neure buruari zer egiten ari naizen, baina alderik onena bidean ikasten duzun guztia da.

Ana Muñoa Ubis, Basoberri, Zegama

Eta bidelagunik izan al duzue?

A.A.: Hasierako fase honetan Biolurreko Leire Ibarretxek asko lagundu digu. Baita Lurberryko Ruben Sabalzak ere, beraien aholkuak jarraitu ditugu bai lurra prestatzerako garaian, eta baita landaketak egiterakoan ere. Eta orain ere eurekin ari gara ikasten.

A.M.: Proiektuan bakarrik nago, baina lagunen eta senideen laguntza dut beti. Bestalde asko ikasi dut Zegamako jendearengandik.

Azpimarraren bat gehituko zenukete?

A.A.: Nekazaritzako lan-unitateak kalkulatzeko tresnak (NLU) ez du zuzeneko salmenta egiten dugun ekoizle txikion errealitatea ondo kontenplatzen, eta uste dut nekazari berriak instalatzeko garaian, askok lehendabiziko oztopoa hortxe bertan aurkitzen dutela. Hori berrikusi beharko lukete nekazaritza politikak egiten dituztenek.

A.M.: Jendea gonbidatuko nuke proiektu txikiak ezagutzera, atzean duten lana ikus dezaten eta, horrela, gure erosketa-saskian jartzen ditugun gauzen balioaz gehiago jabetu daitezen, ez bakarrik frutagintzan, baita nekazaritzan oro har, abeltzaintzan, kosmetikan, modan etb.

BASOGINTZA

SUA EUSKAL HERRIAN

Markel Arrolabengoa, TANTAI KOOP.

Suak hartu ditu, beste behin, Iberiar Penintsulako eta Europako basoak. Ikusi ditugu mendiak sutan, suhiltzaileak, basozainak, basogileak eta herritarrak borrokan, ikusi dugu etsipena milaka pertsonen aurpegietan eta jabetu gara, berriz ere, arazoaren dimentsioaz.

Hala ere, euskaldunok distantziazatik erreparatu ohi diegu halako gertaerei, Euskal Herrian bizi dugun egoera bestelakoa dela sinetsita. Egia baita, finean, azken hamarkadetan inguruko herrialdeetan baino askoz ere arazo gutxiago eragin dituela suak gurean.

Ez dezagun pentsa, baina, salbu gaudenik. Suaren hedapena paisaiak, klimak eta azpiegiturek zehazten dute batik-bat, hain zuzen, gurean ere bortizki aldatzen ari diren aldagaiek. **Klima larrialdiak ahuldu egiten ditu ekosistemak eta, suaren hedapenerako hain garrantzitsuak diren baldintza lehor eta haizetsuak hauspotzen ditu.** Azpiegiturak ezinbesteko elementuak dira suaren kontrako borrokan, beharrezkoa baita mendi-bideak garbi eta txukun mantentzea, sua pizten denean hura itzaltzeko eginkizuna dutenak azkar eta seguru mugitu daitezen.

Aipatutako hiru elementuetatik **aldaketa handiena jasaten ari dena, paisaia bera da.** Pentsa, bi mende besterik ez dira pasa Euskal Herriak inoizko baso azalera txikiena ezagutu zuen unetik. Burdinolek, eraikuntzek, abeltzantzak, energia beharrak eta beste hainbat faktorek erabat arbola-gabetu baitzituzten gure mendi eta bailarak. Azken urteetan, aldiz, asko egin du gora zuhaitzien azalerak eta, abeltzantzak indarra galdu duen neurrian, ote, sasi eta abar ere izugarri ugarritu dira. Marka berria dugu orain; inoizko sastraka azalera handiena.

Aldatu dugu fauna, aldatu dugu klima, aldatu dugu flora...puntu honetara iritsita astakeria litzateke kudeatu gabeko paisaia naturalagoa dela baieztatzea. Eta hori adierazten du, hain zuzen, berezko bilakaera baten baitan lekuri izango ez lukeen sastraka kopuru izugarri honek.

Kudeaketak, bere horretan, ez dakar hobekuntza bat. Bai ordea kudeaketa egoki batek. Azken urteotan Euskal Herriko ipar-mendebaldean nagusitu den arraseko mozketak bidezko basogintza ereduak, adibidez, paisaia sukoiago bat sustatu du. Baso kalteberak eta erresilientzia gutxikoak sortu dira, besteak beste, espezie exotikoen erabileraren, lur galeraren eta ekintza bortitzegien eraginez. Horrek guztiak bide eman dio eguzki beharra duen sastrakadi sukoiairen kontrolik gabeko hedapenari. Espezie sukoien erabilerak ere, eukalipto eta zenbait konifero tarteko, sukoiago egin ditu basoak.



Bada, baina, alternatibarik, eta horiek garatu nahian dihardugu zenbaitzuk; ekosistema erresiliente eta aberatsagoak sortzeko eginkizunean. Labur azalduz:

- Baso egitura helduek hobeto eusten diote suari, suteak arinak direnean bederen.
- Estaldura jarraitua mantentzen duten basoek sastrakadien hazkuntza mugatzen dute.
- Bertako hostozabal espezieek, oro har eta baldintza berdinetan, pinuek eta eukaliptoek baino hobeto eusten diote suari.
- Baso egonkorretako lurra aberatsagoa denez, zuhaitzak osasuntsuago hazten dira eta hezetasun handiagoa pilatzen du basoak.
- Abeltzantza estentsiboak etenak sortzen ditu, landaretza sukoiairen zabalkundea oztopatuz.

Prestatu dezagun paisaia, sua etorri badator-eta.

KIDEEK ZER DIOGU

**ANE GOROSABEL MONGE
BARATZEZAINA, ELKORO BASERRIA
BERGARA**

AGROEKOLOGIA ETA AMATASUNA

Maite dut udazkena. Uda atzean geratu da, egunak motzagoak dira, ilunagoak, hotzagoak. Sagar zukua egin, kalabaza ganbaran gorde eta ongarri berdea ereiten dudan momentuan badakit urtaroz aldatu dugula. Beheko sua piztu eta erritmoa pixkat jeisteko desira dut. Desira, eta aurten, inoiz baino gehiago, baita beharra ere: erritmoa jetsi eta proiektuaren bidea birplanteatzeko, proiektuaren bidea marrazten jarraitzeko.

12 uda daramatzat baratzezaintza egiten, baina aurtengoa desberdina izan da. Uda hontan gure alabek bi urtetxo bete dituzte. Jada kapaz dira etxetik ortura euren kabuz ibiltzen joateko. Bidean masustak jan izan ditugu, asto eta ardiak agurtzen ditugu, ogi pixkat eman eta denak daudela baieztatu.

Gustura ibiltzen dira artazi txikitxo batzuekin lorak mozten, badakite patatak lur azpian hazten direla, baita landuta dagoen lurra ez dela zapaldu behar, lepozuriak oiloak jaten dizkigula eta basurdea ortutik kanpo mantendu behar dugula.

Lasaitasuna dakarkit eurekin ortuan egoteak, ilunabarra ikusi, fantasiako istorioak asmatu, miruaren hegaldia jarraitu, kilkeraren kantua entzunaz bere gotorlekua topatu... **Bizi garen ingurua euren begien bitartez deskubritzea ederra izaten ari da.**

Bizipen berriak izan ditut aurten ortuan, asko politak. Baina **ez da uda erreza izan.** Gorputzarekin hain exigentea den sektore honetan ez da erraza gorputza bere osotasunean behar duen haurdunaldi, laktantzia eta zaintza bizigarri batekin elkarbanatzea.

Bi erritmo zeharo kontrajarriak uneoro uztartzeak bere konplexutasuna dakar.



Momentuz ez dut jardun hau ez den beste bat nahi. **Egiten dudana egiten jarraitu nahi dut:** elikagai agroekologikoak herriaren eskura jarri. Lurrak zaindu nazan lurra zaindu. Proiektua transformatzen dijoa, eta **bide berriak zabaldu** behar ditut gura dudan honi eusteko.

Arantza Arrien baserritarrak **Erroa eta Geroa** dokumentalerako egin genion elkarriketan elkarbanatu zigun gogoeta datorrit sarri burura: ***“nik nahiko neuke ailegetia momentu bat animetan dozuna (seme alabak) hor gelditzera (baserrian)”.***

Nik ere berdina nahi dut, Arantza. **Jarraitu dezagun lanean, jarraitu dezagun sareak sortzen, bide berriak marrazten, jarraitu dezagun sinisten:** posible dela, proiektu errentagarri eta bizigarri egonkorak posible direla.

Amatasuna ezin da agroekologia egiten jarraitzeko oztopo izan, agroekologia eta amatasuna ez direlako kontrajarriak. Bata bestearen sostengu izateko gakoak topatzen jarraitu behar dugu.



KIDEEK ZER DIOGU

MAIA OSSA/ ARAITZ EIZAGIRRE ARROA BEHEA

Azokaren antolaketa betean geundela (eta harridura puntu batekin) jaso genuen testu hau idazteko proposamena. Zer daukagu, ba, guk kontatzeko? Bakoitzak bere ibilbidetik egin dugu topo Biolurrekin, eta bide horiek bat egin dute Arroa Beheko azokan.

Bietatik **baserriarekin lotura** duena ni naiz, **(Araitz)**. Txikitatik amama eta aitxixeren baserrian ibili naiz bueltaka. Duela bospasei urte **amamaren baserriko** lurrekin zer egin erabaki behar zenean, **lur horiek kudeatzeko ardura** hartu nuen. Ordutik han ibiltzen naiz **fruta arbolekin** gora eta behera: landareak ateratzen, txertaketak egiten, hara eta hona barietate zaharren atzetik... ikasteko asmoz, **formakuntza** ezberdinak egiten hasi nintzen eta orduan egin nuen **topo Biolurrekin**.

Ni berriz **(Maia)**, Txara Kooperatibaren bueltan hasi nintzen **agroekologiara hurbiltzen**. Urte batzuk atzerrian eman ondoren, herrira itzuli nintzen hemen zerbait egiteko gogoz. Egun lankide dudana Pilik bota zidan enbidoa, Arroa Behean denda bat behar genuela iritzita, eta 2021eko maiatzean ireki genuen **Txara**. Hasieratik argi genuen **proiektu kolektibo bat** izan behar zela, herritarrek herritarrentzat sortutako zerbitzu bat. Horretaz gain, **garrantzia** ematen diogu **gertukotasunari eta agroekologiari**. Hala, dendak martxa hartu ondoren Biolurkide egitea erabaki genuen.

Biok agroekologiaren gaiarekin mugituta eta inguruko zenbait jenderekin batera, **2021eko udazkenean lehen artisau eta baserritarren azoka** antolatu genuen. Arroa Behean udazkeneko antolatzen den Txikitasunian Haundi jaialdiaren baitan izan zen. Herria biziberritzeko asmoz sortutako jaialdi horretan parrandak protagonismo handia zuen, eta bestelako espazio bat ere sortu nahi genuen. Azoka horren **hazia hilabete batzuk lehenago erein** genuen, Txararen irekiera egunean inguruko ekoizleekin egindako azokatxoan.



Udazkenean antolatu genuen azokak harrera oso ona izanda, hurrengo ediziotik aurrera izaera propioa hartu zuen. Gaur egun, **herritar taldetxo batek antolatzen dugu** azoka eta gure helburu nagusia herritarren eta ekoizleen artean **hartu-emanen sortzeko espazioa** eskaintzea da. Ez hori bakarrik; ez guke nahi ikusgarri hutsa edo egun-pasa egiteko aitzakia soilik izatea. Azoka egunean **salerosketak protagonismoa izatea** nahi dugu, etortzen dena otarrak beteta itzultzea. Horrez gain, baserritarren eta artisauen mundua herritarrei ezagutaraztea dugu xede, baita **baserritar eta artisauak erreferente** gisa erakustea ere. Izan ere, baserritik zein eskulangintzatik bizitzea posible dela ikustea nahi dugu, lanbide horiek balioan jartzea, eta, zergatik ez, jendea lurrarekin eta sormenarekin konektatzera animatu. Gainera, horrelako ekintzek herria biziberritzeaz gain, herritarren arteko **komunitatea indartzen** dutela uste dugu, eta garrantzitsua iruditzen zaigu, orain bereziki, bizilagun berri asko ditugun honetan.

Hori guztia esanda, **azoka** agroekologiaren aldeko ekarpen txiki bat dela uste dugu. Izan ere, kapitalismo basatia gailentzen den garaiotan, **lurrak, herriak eta kulturak gupidarik gabe suntsitzen dituzten merkatuen logiken kontra egiteko alternatiba agroekologia** dela sinesten dugu. Zentzu horretan, Biolurrek urteak daramatza agroekologiaren bidea egiten eta zabaltzen, eta horregatik beti lekua egin diogu gure azokan. Mila esker gazteontzat erreferente izateagatik eta bide honetan laguntzeagatik! Mila esker gure inguruko ekoizle eta baserritar txiki guztiei ere, behar-beharrezkoa den lana egiten duzuelako!

AGROEKOLOGIA JENDARTERATZEN

AZOKAK TOPAGUNE

Azokak salmentarako eta komunikaziorako espazio garrantzitsuak dira. Bertan gauza asko gertatzen dira: ezagutza partekatzen da, ideia askorako inspirazio-iturri dira, harremanak sortzen dira, aliantza berriak erretzen... Gauza asko eskaintzen ditu azoka batek.

Helburu hauei eutsiz, **aurten ere azoka ekologikoen dinamikarekin jarraitu dugu** eta Gipuzkoako **7 herritan** izan gara; Zarautz, Zumaia, Donostia, Erreenteria, Zerain, Azpeitia eta Eibar.

Tokian tokiko udalen eta eragileekin elkarlanean, egitarau aberatsagoak egiteko aukera izan dugu hainbat udalerritan. Horren adibide dira Goierriko hambostaldia eta Eibarko azoka. Bestalde, aspaldiko eskaerari erantzunez, Erreenterian azoka herriko Foruen Plazan egitea lortu dugu, balorazio oso positiboa izan duena ekoizleen partetik. Eta Atlantikaldiaren programazioan *“Biolurrekin sukaldean kontu kontari”* ekimena txertatzea ere berrikuntza izan da.

Gonbidatu gaituzten beste hiru azoketan ere izan gara, bakoitzak izaera propioa izanik erakuslehoi izan direnak; Itziarko peria, Arroako artisauen eta baserritarren azoka eta Lurrama.

Plazetan jarraituko dugu!



LURRAMAK 20 URTE

“Bihar ere laborari” lemapean, azaroaren 7, 8 eta 9an Miarritzen izan gara, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak (EHLG) luzatutako gonbidapenari erantzunez.

Lurramak hainbat proposamen eta ekimen ekarri ditu plazara, egitarau zabala osatuta. Aurtengoan, **erreleboaren gaia eta etorkizuneko laborantzaren eta elikaduraren auziak jarri ditu mahai gainean**, errealitatea iraultzeko asmoz hainbat ertz dituzten gaiak aztergai izan direlarik hiru egunez egin diren ekimen eta mintzaldietan.

Gipuzkoari eskainitako txokoan izan gara **Biolureko hainbat ekoizle, eta Alternatiben gunean ere** egono gara elkarteko materialarekin, Erikaenea eta Elikagune kontsumo kooperatiben proiektuekin batera. Bestalde, larunbatean **“Lurra, laborarien lan-tresna” mintzaldian Amillubi** proiektuaz hitz egiteko aukera izan genuen, eta Iñaki eta Kelo kideek ere beraiei iritziak eta esperientziak eraman zituzten beste bi mahaingurutara.

Miarritzeko Irati erakustazoka jendez bete zen hiru egunetan: ume, gazte, heldu... eta 1.000 bolondres! Lurrama azoka bat baino gehiago dela ikusi dugu; laborantza iraunkorra erdigunera ekartzen duen zita garrantzitsua, atxikimendu zabala eta anitza duena.

Pozik etorri gara, hegoaldeko errealitatea bestelakoa bada ere, norantza onean gabiltzanaren konbentzimenduz!



AGROEKOLOGIA JENDARTERATZEN

EHKOlektiboa-EKOLURRA SAIOAK

ENEEK-EKOLURRA Kontseiluak eta EHKOlektiboak elkarlanean, **“Agroekologia: zigilu ekologikoan oinarritutako balioen topalekua”** izeneko 3 saio antolatu dituzte aurtengo udazkenan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban.

Gaur egun, nahasmen handia dago ekologikoa, bertakoa, jasangarria, km0... eta antzeko kontzeptuen artean, horregatik, kontzeptuak argitzeko beharra ikusita, **saioen helburua irizpide agroekologikoaren oinarriak zeintzuk diren ezagutzera ematea** izan da. **Zer da bertako elikagaia, jasangarria, ekologikoa eta agroekologikoa?**

Saioek harrera oso ona izan dute, eta herritar mordoxka bat gerturatu da.

ENEEK-Ekolorra eta EHKOlektiboaren arteko elkarlanaren hastapena izan da hau, baina lanean jarraituko dute agroekologiaren bidea elkarrekin eginez.

EHKOlektiboa: ETXALDEEN BISITA KANPAINA

EHKOlektibok sorreratik izan du helburu, agroekologiaren bidean dauden etxalde eta ekoizpenak positiboki bereiztea. Oraingoan, bide horretan pausu berri bat ematera doaz. **Berme Sistema Parte-hartzailearen bidez, EHKO sarea osatzen duten etxaldeak bisitatuko dituzte.**

Aukera paregabea da etxaldeak patsadan eta giro onean bisitatzeko, beste laborari edo herritarrek ezagutzeko eta elkarrekin agroekologiaren bidea egiteko. Nafarroako etxaldeekin hasi zen kanpaina eta **abendu eta urtarrilean** gainerakoak egingo dituzte. Interesa duen orok parte hartu dezake bisitetan.

Ez galdu aukera, anima zaitetz!

ehkolektiboa.eus web gunean egutegia kontsultatu eta izen emateko aukera.



AGROEKOLOGIA JENDARTERATZEN

ORDUÑAKO TOPAKETAK

Aurten Azaroaren 13tik 15era Orduñan izan dira agroekologiaren aldeko Udalerrien Sarearen Urteroko Topaketak. **“Elikatzen duten udalerrriak: Agroekologia ardatz duten tokiko politikak”** izan da aurtengo leloa, eta 3 egunez elikadura ardatz duten politika publikoak eta tokiko esperientzia agroekologikoak ezagutzeko eta aztertzeko espazio interesgarria izan da.

Biolurkideok bertan egoteko aukera izan dugu, eta **ekoizleen antolaketak eta aliantzak eraikitzeak politika publikoetan eragiteko duten garrantzia azpimarratu dugu.**

Horren adibide izan dira Duina ikerketaren ondorioz eragile ezberdinen inplikazioz martxan jarri diren hainbat ekimen, eta Amillubi proiektuari lotuta eraiki ditugun aliantza publiko komunitarioak.

Beste behin ere Orduñan ikusi dugu tokitik eta txikitik gauza asko egin daitezkeela eta agroekologiak dituen inplikazio sozioekologikoak gure lurralderako behar beharrezkoak direla.



BIZI BARATZA ORRIA

Argia aspalditik dugu bidelagun agroekologia plazaratzen. Elkarlanean hainbat gai jorratu ditugu eta kide askok parte hartu dugu; saioetan eta elkarrizketetan, erreportaiak osatuz, iritzia emanez, liburuak kaleratuz Gai askori ahotsa jartzeko bozgorailu garrantzitsua da: **Lurra Herriari Deika**, pandemiaren itxialdian sortutako hauspoa; 2023tik **Egonarria** podcasta entzuteko aukera, lurrari eta laborantzari buruzko saio ederra.

Aurten berriz beste sopesa eder bat! Bizi Baratzea Orria, formatu oso bereziko aldizkaria. Urtaro bakoitzean lotutako hainbat gaien jakintzak eta praktikak jasotzen dituen, ilustrazio, argazki eta bitxikeriez osatuta. **Oraingoan labetik atera berri duzue neguko alea, Argiaren oparia!!**



AGROEKOLOGIA JENDARTERATZEN

DEBAGOIENAKO ELIKADURA BURUJABETZARAKO ESTRATEGIA

Beste Gure Lurriña batzuetan kontatu izan dugun bezela, Debagoienera ere ari gara udalerrri zein eskualde mailan pausuak ematen.

Azken urte honetan zehar, agroekologia eta elikadura burujabetza ardatz, erakundeen arteko koordinazioa indartzeko pausu garrantzitsuak eman ditugu. Herritik eskualdera salto eginez, eskualde politikan eragiteko gaitasuna indartu eta proiektu berriak abiatzea izango da helburua hemendik aurrera.

Elikadura kate guztia kontuan hartuta ari gara martxa hartzen: **Elikadura Mahaien garapena, Tokixan** elkartearen eratzea, ekoizle berrien instalaziorako herri-lurrak bermatzea, udal ordezkarietarako formazioa, jantoki eta azoken eraldaketa, ekoizleen baldintzak hobetzeko tresnak, ekoizpenari begirako formazio eta akonpainamendua...



Sektoretik hurbil gauden herritar eta erakundeon konbentzimendua ez dugu nahikoa ordea, eskualdean lurreratutako **apostu sendoak lortzeko planteamenduetan asmatzea gakoa izango da.**

Gure babes guneetatik harago, **zein formula/egitura arakatu erakunde publikoetan eragiteko?** Kontsumoan zein ekoizpenean *"Inor ez dago prest hemen horretan jarduteko!"*-ri erantzuteko **zein lanpostu eredu bultzatu behar ditugu?**



Horretarako, bi plano hauen oreka garrantzitsua izango zaigu: batetik, estrategia, antolakuntza, lehentasunak, finantzazioa, helburuak, plangintzak, koordinazio on bat bermatzea.... eta bestetik, elikaduraren zentzu herrikoia berreskuratzea, herritik eta lurretik gertu egotea. **Elikadurak gai sozial ugari elkarlotzen ditu** (baliatu dezagun!). **Herritarren eta inguruaren zaintza bermatzeaz ari gara.**



Zalantza barik, **egiten ari garen bide honek, herrigintzan era anbiziotsuago batean sinistea ekarri digu**, eta **Biolur** elkartearen ibilbidea zein inplikazioa **ezinbesteko** elementuak izaten ari dira. Bidean segiko dugu lagunok!

AGROFEMINISMOA ALDARRIKATZEN

DUINatik FEM-VIDara Proiektu agroekologikoen bi(zi)deragarritasun sozioekonomikoa

Biolurrek 2020-2022 bitarteko DUINA proiektuan Gipuzkoako eta Bizkaiko baratzezaintza ekologikoko 11 proiekturen dimentsio sozio-ekonomikoa aztertu zuen. DUINak nabarmendu zuen baratzezaintza agroekologikoan diru-sarrerak oso estuak eta lanaldiak gogorak direla, eta bertan aritzen diren pertsonak pozik egon arren, bizitza pertsonalarekiko bateragarritasun zaila dutela. Emaizekin 2022an “Ekoizpen Duina, Kontsumo Herrikoa” lelopean dibulgazio kanpaina jarri genuen martxan, ondorioak eta inplikazioak herritarrei, sektoreari eta tokiko erakundeei helarazteko.

DUINA zenbait eragin eta inplikazio garrantzitsu izaten ari da eta, gainera, **erreferentziazkoa eta inspirazio iturri** izaten ari da beste hainbat lanetarako. Izan ere, **DUINako emaitzekin hainbat gai mahai gaineratu** ziren: *nola arindu lan-denbora egunerokoa bizigarriagoa egiteko? zein lan eta kostu hartzen dira kontuan eta zeintzuk ez, ekoizten ditugun elikagaien balioa kalkulatzeko? zein eragin “positibo” sortzen dira ekoizpen eredu agroekologikoari lotuta?.* Zentzu hortan, Biolurren lanean gabilta eskualde ezberdinetako elikadura estrategietan. Era berean, FEM-Vida proiektuak DUINaren lorratzari jarraitzen dio eta agroekologiaren eta ekonomia feministaren ikuspegiaren “bizigarritasunaren” nozioan sakontzen du, Galizako, Catalunyako eta Pais Valenciako 12 proiektu agroekologikotan (4 abeltzaintzakoak, 2 frutagintzakoak eta 6 baratzezaintzakoak), non guztietan emakumeak diren buru.

Bideragarritasunetik Bizigarritasunera

“Agroekologiako ekoizpen txikiaren bideragarritasun sozioekonomikoa: diagnostikoa eta tresnak ekonomia feministatik (FEM-VIDA)” proiektuan **Kataluinako UVIC-CCC Unibertsitateko Càtedra d'Agroecologia i Sistemes Alimentaris, Euskal Herriko Unibertsitatea, Sindicato Labrego Galego, URGENCI sarea, l'Aresta, Arran de Terra eta Biolur Gipuzkoa** elkarlanean gabilta. Estraktibismo akademikotik aldenduz, ezagutza kolektiboa eraikitzea bilatu dugu, ekoizleak ikerketa prozesuaren egilekidetzat izanik.

Badakigu datu ekonomiko klasikoek (errentagarritasuna edo balio garbia, adibidez) bizitzaren funtsezko dimentsioak baztertzen dituztela. Bideragarritasun ekonomiko tradizionala onura finantzarioetan neurtzen den bitartean, **agroekologiaren bizigarritasuna oinarritzko beste ardatz batzuk barneratzen ahalegintzen da**, hala nola: **lanen banaketa ekitatiboa, zaintza lanak** (lurrarenak, izaki zein komunitatearenak), **baliabideen autonomia eta kontrol kolektiboa, laborarien ongizatea eta bizi-asebetetzea, nekazaritza iraunkorraren eragin ekologikoa eta soziala.**

FEM-Vida ikerketan erregistro lan handia egin da: lan guztien identifikazioa, lan-denborak neurtzea, zeregin/erantzukizunen banaketa, eragina duten barne zein kanpo faktoreak, aurrera egiteko aktibatzen diren estrategia indibidual eta kolektiboak, edota zereginiek sortzen dituzten asetze/kostu/etekin mailak. Jasoketa guzti horrek, datu sozioekonomiko klasikoetatik harago, proiektu agroekologikoen bideragarritasunaren nozioa osatzeko “non” eta “nola” begiratu zehazten lagundu digu.

Bideragarritasuna autodiagnostikatzeko tresna agroekofeminista bat eraikitzea da helburua, **erabilgarria** izango dena proiektuen **bizigarritasunari begiratzeko**, erabakiak hartzen laguntzeko. Horretarako, datuen jasoketa eta gero, 2025ean zehar taldekako tailerrak eta emaitzen itzultze parte-hartzaileak egin ditugu, eta laster “tresna” amaituta egotea espero dugu.



BASERRITARREN BILGUNEA

EREDU AGROEKOLOGIKOAN ARI DIREN LABORARIEN AHOTSA Nerea Arrizabalaga Badiola

Bi urte eta erdi joan dira Biolurreko Batzar batean **sektoreko egonezina mahai gainean** jarri zenetik; lankarga handia, errenta prekarioa askotan, errekonozimendu falta, gure ekoizpen ereduko irudiak beste eredu batzuk iragartzeko lapurtuak, administrazioaren bazterkeria...

Batzar hartan gogoz zegoena biltzen hasteko deialdia egin zen eta hala hasi zen 7-8 pertsonako taldea aldiro biltzen "Egurra ta Kandela" izenpean.

Denbora tarte hontan **hainbat elkarretaratze** egin ditugu, gaiak gertutik ukitzen gintuelako: food 4 future-en, haragi sintetikoa diru publikoz bultzatzearen, abeltzaintzarako lurrak eguzki plakak jartzeko espropia ez zitzaten, Aldundiaren aurrean harturiko hainbat neurri zalatzeko...



Talde bezela **hainbat gunetan parte hartu dugu**; Etxalde, Rurbact, EH Bizirik... Batzuetan lehendik zeuden espazioetan gai komunak lantzeko eta besteetan baserritarron ahotsa eramateko.

Bilera askotan irtetzen zen egitura edo **forma juridiko baten beharra** edonora zuzentzeko; izan komunikabide edo administrazio... eta naturalena sindikatu izatea zela ikusten zen.

Nolako egitura izan zezakeen lantzen hasi ginen eta hortan ari gineala iritsi zitzaigun berria:

Asturiarrek ia 40 kiderekin Xuntanza Campesina sortu zuten, **nekazari eta abeltzain txikien sindikatua**. Guk ere egin genezakeen!



Izen aldaketarekin baina bide guztian landutako oinarriak mantenduz **Baserritar Bilgunea sindikatuaren eratze batzarra egin genuen Urriaren 11an Biziolan**. Sindikatua, lan eta bizi eredu gisa agroekologia duten nekazari eta abeltzainen topaleku izateko asmoz, sektorerara irekia dago, baita elikadura, natura eta gizartearen zaintzak motibatzen dituen herritarrei ere. **Gure ahots propioaren bozgorailu izateko**. Erabaki guneak modu horizontalean landuz.



Guk lehen urratsa eman dugu, bidea **elkarrekin egin behar dugu baserri iraunkor eta bizitza duinak** izateko. Sektore txikia gara eta honelako proiektu batek aurrera egingo badu, denon konplizitate eta konpromisoarekin izango da. Bakoitzak ahal duen inplikazioa eta gaitasuna eskeiniz.

- Orokorrak eta bateratuak: **nekazaritzaren, abeltzaintzaren edota basogintzaren sektoreetan lan egiten duten pertsona guztiek har dezakete parte**, betiere sexua, generoa, ideologia, erlijioa, politika edo hizkuntza dela-eta inor baztertu gabe. Izan ere, erakundeak bere gain hartzen ditu pertsonak eta ingurunea zaintzea lehentasun gisa.
- Asanblearioa: **erabakiak asanbladan** hartuko dituzte erakundearen afiliatutako pertsonak. Asanblada estatutu honetan zehaztutakoaren arabera antolatuko da eta beteko ditu bere funtzioak
- **Independentea**: talde politikoez edota bestelako erakundeekiko.
- Feminista: Geure burua **ekofeminista** gisa definitzeak zaintza erdigunean jartzea eta esplotazio sistema bere adierazpen guztietan arbuiazea dakar. Estatutu honetako hurrengo artikulua guztiak bat etorriko dira ideologia horrekin, erakundeak bere gain hartzen baititu pertsonak eta ingurunea zaintzeko lehentasunak. Horren ondorioz, etengabe berrikusiko ditugu gure dinamikak, rolak eta ardurak banatzeko orduan, ez errepikatzen inongo diskriminaziorik edota zapalkuntzarik generoa dela eta, ez maila mikroan ezta makroan ere. Onartzen dugu sindikatu hau mistoa den heinean, ezin dugula modu esplizituan feminista bezala izendatu, gure antolatzeko moduek ez badute hori erakusten. Beraz, gure antolatzeko moduak eta lidergo partekatuek definituko dute aldarrikapen feministekiko dugun koherentzia, eta zehazki aldarrikapen ekofeministekikoa.
- **Antikapitalista**: Elikadura burujabetza eta ingurugiroa zaintzea eskubide bezala ulertzen ditugu, horregatik, erakunde honen helburuen artean ez da inoiz egongo etekin ekonomiko soila defendatzea pertsonen, baliabideen edota lurraldeen ustiapenaren kontura.
- **Agroekologikoa**: Biodibertsitatea eta ekosistemak mantendu eta biderkatu nahi ditugu, horiek osatzen dituzten elementu guztiak kontuan hartuta.

BASERRITAR BILGUNEA



**HERRITARRAK
ADI!!!**



**BASERRITARRAK
ANTOLATZEN!!**



IBAITIK ITASO
PALESTINA
LIBRE IZANGO